



IBILGAILUAREN TITULARTASUN-ALDAKETA

GARRANTZITSUA: Ibilgailuaren titulartasun-aldaketa eskatu baino lehen egin beharko duzuna da:

- Ondasun Higikorren Erregistroan izena emandako edozein erabilpenmugapen ezeztatu, finantza -erakundearen berriazko baimena salbu.
- Ibilgailuen Erregistroan idatziriko garraio arau-hausteengatik inposaturiko isunak ordaindu.
- Iazko Zirkulazio-Zerga kitatu.
- **Gogoratu buruzagitza quztietan izapideak egiteko aurretiko zita eskatu behar duzula.**

■ **Eskaera:** inprimaki ofizialean. (*Inprimakia www.dgt.es-en*)

■ **Tasa** 54,60 €ko zenbatekoagatik, ziklomotoreak izan ezik 27,30 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik).

■ **Interesdunen identifikazioa:**

- Pertsona fisikoak: erosleak bere nortasuna eta helbidea egiaztatzen duen dokumentu ofiziala, originala, aurkeztuko du (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitza-txartela, pasaportea gehi Atzerritarren Identifikazio Zenbakia).
- Pertsona juridikoak: elkarrearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duenaren nortasuna (*Inprimakia www.dgt.es-en*)
- Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura, bere NAN-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.
- Saltzailea identifikatzeko, idatziz jasotako agiriren baten fotokopia nahikoa izango da. Saltzailearen identifikatze baldintza hau ez da beharrezkoa izango aurretik salmenta jakinarazpena aurkeztu bada.

■ **Ibilgailuaren dokumentazioa:**

- Zirkulazio-baimena alde aurretik salmentaren jakinarazpena eman ez bada.

■ **Zergak:**

- Eskuratzaillearen Euskal Autonomia Erkidegoan egindako Ondare Eskualdatzeen Zergaren ordainketa/salbuespen/lotura ezaren egiaztatzea, saltzailea bere jarduneko enpresaria denean ezik, kasu horretan faktura erantsiko du. *Kataluniako E.A-n eta Nafarroako F.K.an frogagarria aurkeztuko da kasu guztietan, ziklomotor eta 10 urte baino gehiagoko zenbait ibilgailu zehatzetarako izan ezik, auto-likidazioa aurkezteko beharrik ez dutelako (ez historikoak eta 40.000 euroko balio baino gutxiagokoak). Aragoiko A.E.an kasu guztietan aurkeztuko da frogagarria, 10 urte baino gehiagoko eta, gainera, 1.000 zm^3 baino gutxiagoko ibilgailuen kasuan izan ezik.*

Aurreko dokumentuez gainera:

- Eskualdatzearen egiaztatzea ibilgailuaren titularrarekiko loturaren banantze, dibortzio edo haustura suposizioetan: epaia, hitzarmen arautzailea...).

□ **Nekazaritzako ibilgailuak:** Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Makineriako Erregistro Ofizialean izen-emateko ziurtagiria, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztatari telematikoa izan ezik.

□ **Garraio-ziurtagiria:** autobusa edo 6 tona baino handiagoko BGMko eta 3,5 tona baino handiagoko zamarako salgaiak garraiatzeko ibilgailua bada, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztatari telematikoa izan ezik.

□ **Kanariak, Zeuta eta Melillatik datozen ibilgailuak:** zerga-betekizunak bete denaren Aduanen ziurtagiria..Inportazioaren idazpenerako 8,50 €ko tasa ordainduko da.

□ **Heriotzagatiko transferentzia kasuetan,** ibilgailua eskuratzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da (*Inprimakia www.dgt.es-en*) bai eta oinordetza-zergen **likidazio-frogagarria** ere.

□ Enkante arrunta edo Drogen Egitasmo Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzak esleitzearen kasuan, akta edo esleipen zirurtagiria agertu beharko da.

□ Matrikulazio-Zergaren ordainketa/salbuespenaren egiaztatzea, autoeskolaren ibilgailuen titulartasun aldaketa kasuetan, gidaririk gabeko alogera, taxia, egoitza-aldaketa, guzti horiek matrikulazio-garaian ordainketatik kanpo egon zirenean, legez aurrikusitako epeak amaitu baino lehen egiten direnean.

□ Zigilu-agindua badago zirkulazio-baimena eman dadila eragotziko du.

Behin izapidea eginda, zirkulatzeko baimen berria emango da eta IAT indarrean baduzu besterik ez da balioduna izango.

OHARRA: Izapidea eskuratzailleak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena beharrezkoa izango da NAN-a originalarekin batera, non doako izaera adieraziko den (*inprimakia www.dgt.es-en*).

Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.